




(m) 2001

MUSIKA GOGORRA ETA DANTZATZEKO MODUKOA LEZOKO IBAI ONDON

2001
(Lezo-Ibai Ondo etxea)



IRAILAK 14, OSTIRALA:

BALERDI DJ (Bailongo-nostalgik-house)

IRAILAK 15, LARUNBATA:

SOUND SYSTEM (Musika beltza: ragga, funky, ...)

1. SOLAIRUA:

KANNA!

(Punk-rock, heavy, ska, metal, ...)



2. SOLAIRUA:

DANTZA!

(Funky, disco, techno, ragga, ...)

2 SOLAIRU!
GORPUTZA ASTINDU!
MUSIKA ESTILO DESBERDINAK!

IBAI ONDO



DANTZ KLUB



Lezon Santakruz jaiak ospatuko dituzte asteburuan, eta hango Ibai Ondo etxean ondo baino hobeto prestatu dituzte. Hala, etxeak dituen bi solairuetan hainbat musika mota entzun ahal izango dira. Lehenengoan musika gogorra izango da nagusi (punka, rocka, heavya, ska...), eta bigarrenean dantzarako doinuak nagusituko dira (funka, etno-technoa, raggamuffina...). Ostiralean Balerdi DJk jarriko du musika eta larunbatean Sound System izango da.

bic, euskal dantzak, irratigintza, dantza latinoak, sukaldaritza eta internet. Prezioa 10.000 pezetakoa izango da astean bi ordu eskaintzen duten ikastaroetan, eta 16.000 pezetakoa beste guztietan.

Sexu izaera / Valentzia. Sexu izaera eta transexualitateari buruzko ikastaroa egingo da irailaren 24a eta 28a bitartean Valentziako Menedez Pelayo institutuan. Atzerriko hainbat irakasle eta aditu izango di-

ra gidari eta hizlari. Xehetasun gehiagoren eta diru laguntzen berri jakin daiteke www.uimp.es webgunean edo 96-386.98.02 telefono-ra deituta.

Begirale ikastaroa / Azpeitia. Udaleko Gazteria sailak 18 urtetik gorako gazteei zuzendutako begirale ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroan hasiko da eta datorren urteko maiatzean amaitu. Izena emateko epea irailaren 25era arte egongo da zabalik.

GAZTE EGUNA BALMASEDAN



Segi erakundeak antolatuta, Gazte Eguna ospatuko dute larunbatean Balmasedan. Jaia goizeko 11:00etan abiatuko da, eta ondoren, 14:00etan, triki-poteoa izango da. Herri bazkariarekin gozatu dute gazteek 15:00etan, eta arratsaldeko 20:00etan manifestazioa izango da herriko kaleetan barrena. Gaueko 22:00etan, berriz, kontzertua izango da, Ken Zazpi, Ekon eta Sekula Santan taldeekin. Ekitaldi guztiak pilotaleku ondoko plazan egingo dira.

Hainbat / Legazpia. Legazpiko Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturterako. Marrazketa eta pintura ikastaroa urritik ekainera bitartean egingo da. Eskulan ikastaroa ere urritik ekainera egingo da eta astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 14:30etatik 17:00etara izango dira eskolak. Taila ikastaroa, bestalde, urrian hasiko da eta 30 ordukoa izango da. Tailer guztietara aurkezteko epea hilaren 21ean amaituko da. Izen-ematea kultur etxean egin behar da.

Begirale ikastaroa / Errenteria. Oarsoaldeko Euskara Batzordeak Ai-

sialdirako eta Euskalgintzarako begirale ikastaroa antolatu du. Izena emateko azken eguna bihar da.


Erakusketak

Rock argazkiak / Bilbo. J.A. Areta Juxe argazkilariak hainbat rock kontzertutan ateratako argazkiak Bilboko alde zaharreko Muga tabernan (Maria Muñoz kalea) ikus daitezke. Argazki guztiak zuri-beltezkoak dira, eta argazkilari gipuzkoarrak azken urteotan egindako lanaren laburpena osatzen dute. Juxeren argazkiak irailaren amaiera bitartean izango dira Muga tabernan.

NAFARROA OINEZ JAIAREN AURKEZPENA BILBON

Lodosa-Sartagudan egingo da aurten Nafarroa Oinez, eta euskararen aldeko jai horren aurkezpena egingo dute bihar Bilboko Kafe Antzokian. Jaia arratsaldeko 20:00etan hasiko da, eta dultzaineroak, joteroak eta abar izango dira bertan. Horretaz gain, *El euskera en la Ribera de Navarra* liburua aurkeztuko dute.

argitalpena



'Gaztetxulo'-ren hamaikagarrena kalean. Fresko-fresko hasi dute *Gaztetxulo* aldizkariak denboraldi berria. Oraindik udan gaudela eta, Euskal Herriko hondartzetara jo dute, surfaren eta surfariaren gaineko erreportaia egiteko. Horretaz gain, bestelako gai batzuk ere jorratu dituzte gazteentzako aldizkarian: zinemaren historia-ko une erotikoak, unibertsitatearen gaineko mitoak, Sopelako gau giroa... Bestalde, Xila Pilström gaur egun Donostian bizi den neska finlandiarra elkarriketatu dute, eta, ohi bezala, musikak ere bere pisua du hila-betekarian. Oraingo honetan Batzuk, Incognito, Lif eta Public Enemyren gaineko erreportaiak eta elkarriketak azaltzen dira. Bestalde, ohiko atalak ere aurkituko dituzue *Gaztetxulo*-n: Copernicus, zinema, literatura...

Garry Winogrand / Elgoibar. Women are beautiful izenburupean, Garry Winogrand argazkilari estatubatuarren lana biltzen duen erakusketak ikusgai dago Elgoibarko Kultur Etxean. Izenburuak azaltzen duen moduan, emakumeak dira erakusketaren ardatza. Winogrand 1928an jaio zen eta 1984an hil. Erakusketak heldu den larunbatera arte ikusi ahal izango da, 19:00etatik 21:00etara.

Argazkiak / Legazpia. Legazpi Hiria II. Argazki Lehiaketako argazkiak ikusgai daude Legazpiko kultur etxean hilaren 21era arte. Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara ikus daitezke.